



Iturengo Lazaro Erregerena, adarra jotzen, Latsaga auzora bidean. 40 urte daramatza joaldunarena egiten Erregerenak. LANDIERFIZ ARROIAE / ARGAKZI PRESS

Inauterietarako **deia**

Zubietako eta Aurtitz auzoko joaldunen bisita jaso zuten atzo Iturenen, eta gaur alderantzizko bidea egingo dute; hasi dira inauteriak.

IRUNE LASA
Ituren

Lainoa ez da erabat altxatu eta hotz egiten du oraindik. Mendaur eguzkitan dagoela antzeman daiteke laino hondarren artean eta he-

rrian isiltasuna da nagusi. Auto askotxo herriaren sarreran eta kale nagusiaren alde bietan, baina isiltasuna da nagusi. Plazara hurbiltzean isiltasuna hausten dute lauzpabost foruzainek euren berriketarekin eta frontoian dagoen haur mordoak euren jolasekin. Herriko ostatuko azken solairuan hamaiketako egiten ari dira Iturengo gazteak. Jai giroa da nagusi.

«Larunbatetik hona? Lau bat ordu». Lo gutxi egin du hamaiketakoan anisa edaten ari den mutil gazteak. Mozorrotuta aterako da eguerdian. Atzean, argazki eta telebista kamera artean, lanean ari da Jose Mari Fagoaga joaldunei

janzten laguntzen, tartean hamar urteko Haritz eta 17 urteko Gorka semeak. Flashak pizten dira joareak lotzeko soka tiratzen duenean. 30 urtetan, 15 zituenetik, aritu da joaldun Fagoaga eta gaur ere ez du huts egingo. Sergio Iparragirrek zortzi urte daramatza joaldun izaten eta gaurko egunez, astelehenez, joarekin jarduten momentua da, «zalanztarik gabe», inauterietako unerik onena. «Barruan daramagun zerbait da. Sentitu egiten dugu».

Mutil eta neska abegitsuak. Duela hogeitaz inauterietan joaldun lanetan jarduten ziren lehen emakumeak izan ziren Altsu ahiz-

pak, Amaia eta Jone, Belen Azpiroz eta Arantza Zabala. «Arrautza frijiturik edo xerra edo pastelik nahi? Salda, kafea, ardoa?».

OKERREKO TOKIAN. Emakumea garasika ari zaio (gaztelaraz) irina bota dion moztarotutako haurrari. «Zergatik egin duzu hori?». Plazaz guztia ari begira gelditu da eta joan egin da. Okerreko tokian zegoen. Bisoizko beroki batek bere azken eguna Iturengo inauterietan bizi izan zueneko kontakizten hasten da norbait ondoan. Puskak biltzera joan diren joaldunak

Latsaga auzoan zain, Zubietako eta Aurtitz auzoko joaldunak noiz

etorriko. «Badatoz!». Bat-batean urduri. Bi ilara luzetan bildu dira joaldun guztiak. Bertako 24 joaldunak eta hiru gaztetxo lehendabizi, Aurtizko zortziak ondoren, *hartza* erdian eta Zubietako 20 joaldun atzean. Lazaro Erregerenaren adarra eta joareen taupada bailara guztian entzuten dira.

Iturengo plaza. Eguzkiak ederki berotzen du orain. Abba-ren musika, txaranga eta joare hotsa. Karrozak eta moztarroak. Hesteak eta sardina zaharrak, irina... jaurtitzen ari dira; ez dute taloetarako ilara haustea lortu, baina trukaturako motor moztarotutak ez du arazorik bidea egiteko. Aurten ez dago motozerradunik...

Atsedena eta mokadutxo hartuta, abian dira joaldunak. Elkar agurtu eta talde bakoitza bere herriira itzultzen da. «Bihar arte!» Bihar (gaur) Iturengoak joango dira Zubietara. Inauteriak dira



Hamarkada batzuetan zortzitik laurogeira baino gehiagora igo da joaldunen kopurua Malerreka bi herri hauetan; jende gehiagok dauka gaur egun joareak erosteko dirua. LANDIERFIZ ARROIAE / ARGAKZI PRESS